

### GIPUZKOAN

25 positibo berri  
1.626 hildako  
3195 positibo guztira\*  
4 CIUn

### NAFARROAN

59 positibo berri  
529 hildako  
6.957 positibo guztira

\*Hernanin 79 Astigarragan 24

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA

## MUMM sariak irabazita, Yon Pavon hernaniarra Gipuzkoako koktelero onena izendatu dute

2015 urtean hasi zean Pavon koktelak prestatzen. Bost urte geroago, bera da Gipuzkoan hoberen prestatzen dituen ostalaria. Hernaniarrak proiektu berriak ditu martxan, eta ilusioz hartu du etapa berri honen hasiera.

### HERNANI GASTRONOMIA

Joan den uztailean ospatu ziren MUMM sarietan Yon Pavon hernaniarra Gipuzkoako koktelero onena izendatu zuten. Bost urte daramazki koktel munduan, eta ordutik leku askotan egon da edariak prestatzen. Gainera, izen haundiko kongresuak bisitatu ditu eta honetan lanean jarraitzea da bere asmoa.

Hernaniarrak dio ez dela bere asmoa besteak baino hobea izatea, baina interes haundia du gauza berriak ikastea. Horregatik, munduko txoko ezberdin askotan egon da, zapore berriak ezagutzeko eta bere kokteletan kreatibitate gehiago lortzeko. Izan ere, bere nahia Kuba edo Florida bezalako lurraldeetan

ezaguna izatea da, beste amets askoren artean.

Pavon Mexikon izan da hiru aldiz, Mexicoko bisitatu du eta rona egiten duten bodegak ikusi ditu: *Barceló* edo *Brugal*. Gainera, beti gauza berriak ikasteko prest dago hernaniarra eta horregatik, izen haundia duten koktelariak eta gintoneriak bisitatzen ditu.

### Lana eta esfortzuak eman dio garaipena, hernaniarrari

Duela bost urte ez zekien ezer mundu honen inguruan, baina bertan murgildu zenean liluratu egin zuen koktelak egiteko prozesuak. Horregatik, burubelarri aritu da lanean azken urte hauetan eta badirudi egindako lanak fruituak eman dituela,

azken sari honekin.

*Patricio Pubeko* jabea da Lasarten. Izan ere, Hernanin jaioa da, baina bertan eman ditu bere bizitzako urte gehienak. Ilusio haundiz ireki zuen *puba*, eta bertan prestatzen ditu koktelak. Lehen Hernanin zuen taberna, eta plater konbinatuak eta hamburgerak prestatzen zituen. Hala ere, Txema Huici ezagutu zenean, *Gintoneria Donostiarrako* jabea, bere bizitzak beste norabide bat hartu zuen. Orain, bost urte geroago, Gipuzkoako koktelero onena da Pavon.

### Proiektu berriak martxan

Koktelak prestatzea da Pavoni gehien gustatzen zaiona, baina proiektu berriak ditu martxan. Bere arreba Izaskunekin Lasarteko *Asador Riojanos* jatetxea hartu du eta bertan lanean has-teko ilusio haundia duela dio. Pavonek asko eskertu du Lasarteko Udalak ostalariekin izan duen konpromezua, eta beraiei esker tabernak irekitzea ezinezkoa izango zela adierazi du. **K**



Argazkia: Yon Pavon.

## Hirugarren aldiz antolatu du Goizuetako Udalak balkoi lehiaketa, eta larunbat honetan ospatuko da aurtengoa

Hiru egun falta dira Udakolore balkoi lehiaketako 3garren edizioa ospatzeko. Txapelketako irabazleak 150 euroko bonua izango du sari gisa.

### GOIZUETA BALKOI LEHIAKETA

Herriaren itxura hobetzeko asmoarekin, aurten ere balkoi lehiaketa antolatu du Goizuetako Udalak. Herritarren parte hartzeari esker, goizuetarrek zein turtistek "ingurune atsegin eta ederraz goza dezaten" egin dute balkoiak apaintzearen hirugarren edizioa.

Antolatzaileek esan dute balkoiak eta leihoak apaintzeko bakoitzak nahi duen bezala dekoratzeko aukera izango duela. Horregatik, kolore eta dekorazio ezberdin asko ikusiko dira herrian. Horretarako, aste osoa dute goizuetarrek ideiak pentsatu eta larunbatean herri osoaren aurrean ikusgai jartzeko.

### Ez da aurretik izena eman behar, parte harzeko

Larunbatean ospatuko da 3garren Udakolore balkoi lehiaketa. Parte hartu nahi duenak, ez du izena inon eman behar. Izan ere, larunbatean bertan, goizean, epaileak herrian zehar ibiliko dira balkoiak eta leihoak ikusten. Horrela, epaileen uste-tan etxea ederren apaindu duena izango da edizio honen garaile.

Txapeladuna aukeratu ahal izateko, epaimahaiko kideek, etxearen aurrealdearen zainketa eta itxura osoa hartu-

ko dute kontuan. Horregatik, «garrantzitsua da balkoia eta leihoak ez ezik, gainontzekoa ere txukun izatea», azaldu dute antolatzaileek.

Gainera, beste irizpideen artean, balkoi eta leihoen edertasuna, apaintzearen originaltasuna, loreen konposizioa eta bestelako elementu osagarriak hartuko dira kontuan Udakolore hirugarren balkoi lehiaketan.

Epaileek goiz osoan zehar bis-tatuko dituzte herritarren obrak, eta beraien ustetan herrian hoberen apaindutako balkoia edo

leihoa aukeratu dute. Ondoren, irabazlea zein den esango dute eta txapeladuna irten denak herriko komertzioetan gastatzeko 150 euro izango ditu sari bezala.

Irabazlearen izena egunean bertan jakinaraziko da [www.goizuetas.com](http://www.goizuetas.com) webgunean eta bonua gastatzeko epea 3 hilabete-koa izango da. Oraingoan antolatzaileek parte hartze haundia espero dute, joan den edizioetan Udakolore arrakastasua izan zutelako Goizuetakoek. Horregatik, etxeak apaintzera animatu dituzte goizuetar denak. **K**

## ALAI

ODONTOLOGIA ZENTROA

PREBENTZIO ETA KONTSERBATIO ODONTOLOGIA  
HORTZ ESTETIKA  
AHO KIRURGIA  
INPLANTEAK  
PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA  
PERIODONTZIA  
ORTHOAPNEA

ODONTOPEDIATRIA  
ERRADIOGRAFI PANDRAMIKOAK  
TELERADIOGRAFIK  
3D SCANNERRA  
AHO BARRUKO SCANNERRA  
KIRURJIA NABEGATUA  
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA  
Asteleheneetik ostiralera: 08:30 - 21:00  
Larunbatetan: 08:30 - 14:00

Antziola 11, behea. HERNANI Tel. 943 33 53 73 [www.alaiaclinica.com](http://www.alaiaclinica.com) [alaihernani@gmail.com](mailto:alaihernani@gmail.com)

## Amalia

arrandegia

Arrainak  
Itsaskiak  
Fresko eta  
izoztuak

943 55 07 52 / 650 53 87 72  
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

## OINDI

taberna

NAGUSIA, 25  
HERNANI  
943 557 509

**GAUR** Eguzkia izango da protagonista, egunaren hasieran lanbroa eta lainoa sortuko diren arren. Goizean hego-haizea ibiliko da eta egunean zehar tenperatura maximoek gora egingo dute. **Min.14° / Max.26°**

**BIHAR** Bero handia espero da. Goizean hego-haizea harrotu egingo da eta tenperatura maximoek gora egingo dute. Egunaren bigarren partean bero-hodeiak ugartuz joango dira. **Min.17° / Max.30°**

ARGITARATZAILEA **DOBERA EUSKARA ELKARTEA** **LAGUNTZAILEAK** **Hernaniko Udala** **Argitarragako Udala** **Dobera Euskara Elkarte** **Dobera Euskara Elkarte** **Dobera Euskara Elkarte** **Dobera Euskara Elkarte** **Dobera Euskara Elkarte** **Dobera Euskara Elkarte**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla Urbietak, 7** (Hernani) **943 552941** **Gauzez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK** **ELKARTEA** **ELKARTEA** **ELKARTEA** **ELKARTEA** **ELKARTEA** **ELKARTEA** **ELKARTEA** **ELKARTEA** **ELKARTEA** **ELKARTEA**



Atletak txapelketa batean korrika, atletismo pistak berritu aurretik.

## Berritze lanak bukatuta gaur irekiko dira atletismo pistak, berriro ere

Zenbait aste eman dituzte atletismo pistak berritzen eta lanak bukatu ondoren berriro ere irekiko dituzte, segurtasun neurri bereziekin.

### HERNANI ATLETISMOA

Atletismo pistak berritzeko lanetan aritu dira azken asteetan eta gaur irekiko dira, berriro ere. Berritze lanak egiten aritu dira, eta denboraldi berria hasteko prest utzi dituzte pistak, atletek gustora entrena dezaten.

Aurtengo Hernani Erabaki prozesu parte hartzailean erabaki zen atletismo pistetan obrak egitea eta beraz, herritar guztiek gozatuko dute kirol instalazio berri hauekin. Egindako

berritze lanak izan dira kirol pistak kautxoak zorua berritu eta inguruko belardia txukuntzea.

### Neurri bereziak jarri dira pistak erabili ahal izateko

Atletismo pistetako berritze lanak ez dira berrikuntza bakarria izan instalakuntzetan. Izan ere, Koronabirusa dela eta neurri berezi batzuk hartu behar izan dituzte arduradunek, kirola egiteko leku seguru bat sortzeko.

COVID-19a saihesteko eta ez

kutsatzeko osasun eta higiene baldintzak bete behar dira eta horregatik, hainbat neurri ezarri dira pistetan.

Atletismo pista egun osoan zehar egongo da zabalik, eta gehienez 30 pertsona egon ahal izango dira bertan. Bestalde, bertara sartu aurretik eskuak hidrogelarekin garbitu behar dira. Azken hau norberak eraman beharko du, bertan ez delako eskuragarri egongo. Gainera, beharrezkoa izango da maskarilla erabiltzea; kasu honetan, kirola egiteko kentzeko aukera egongo da. Eta azkenik, pertsonen artean gutxienez bi metroko distantzia mantendu beharko da. **K**

**JASOTA BEZALA**

Gu gure argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizenak, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Gurtza zientziari miseria espiritual gisa

Gizateria osoa, neurri batean, babesgarriak garelako abiapuntutzat hartuta Balioak suntsitzearen ondoriozko krisi zibilizatorio eta existentzial hau Gizakiak edozein ekintza edo erreklamazioaren aurrean, gure sendabidea izango litzateke.

Kontzientzia, errepasatu, gure borroak gordintza ez epaitzeko, agian gure tamainan, beste botere-eskala baten barruan...Bere nagusitasunaren ispilu gara beste izaki batzuen aurrean.

Azkarragoak eta praktikagoak izatea, lehenengoaz bestelako moduan funtzionatzeko.

Konfinamendua, albiste immunodepresore guztiak irens-

tean, izu hori heriotza-eragile nagusia izatea lortzea lehenengoan sorta.

Nazio Batuen Garapenerako Programaren administratzaile izandakoa (PNUD), James Gustave Spehtek aurreko mendearen amaieran iragarri zuen: "Datorren mendeko mehatxu handienak ez dira armetatik etorriko, Osasunaz eta ingurumenaz".

Gaur egun, duela mende laurden esandakoa berresten da: "Uste nuen hogeita hamar urteko zientzia onak arazo horiei heldu ahal izango zela..."

Oker nengoen, ingurumen-arazo nagusiak biodibertsitatea-

ren galera, ekosistemaren kolapsoa eta aldaketa ziren

Gaur egun, ingurumen-arazo nagusiak egoismoa, gutizia dira, eta apatia, eta erronka horiei aurre egiteko, eraldaketa behar dugu, kulturala eta espiritual. Eta guk zientzialariok ez dakigu hori nola egin".

Apatia -edo utzikeria, gaur egun erabiltzen ari den arma-bumerang nagusia da gizateriaren gehiengoa bere buruaren aurka. Gizarteriaren ertzean 1%, komunikabideak dituzte arma eta gezurra munizio, horretaz baliatzen dira Nazio Batuen erakunde guztien bermearekin.

**Iulen Lizaso Aldalur**

## Bi liburu berri, Iñaki Sainz de Murietak

Idazlea arrakasta ari da izaten azken urteetan eta orain, bi liburu berri argitaratu ditu 'Kanideren Abenturak' bildumaren barruan.

### HERNANI LITERATURA

Joan den maiatzean errelato motzen saria irabazi zuen Iñaki Sainz de Murietak eta orain, udan, bi liburu berri plazaratu ditu. *Kanideren Abenturak* kolezioaren barruan, *Zaldien Koba* eta *Suaren Zeremonia* izan dira idatzi dituen azken obrak.

Miguel Berzosa ilustradorearen laguntzarekin argitaratu ditu azken bi lanak Sainz de Murietak. Lehenengoarekin, *Zaldien Koba*, historiaurrearen nondik norakoak ezagutzeko aukera dago. Irakurleak, besteak beste, labar-pinturen ga-

rrantzia eta esanahia ezagutuko ditu. Idazlearen esanetan, liburu honekin, zeharka, bizitza eta naturarekiko errespetua eta baloreak lantzen dira.

Sainz de Murietak argitaratutako bigarren liburua, *Suaren Zeremonia*, *Kanideren Abenturak* bildumaren barruan dago, baita ere. Kasu honetan, protagonistak bere bizitza nolako den erakusten jarraituko du. Kanideren azalpenei esker, bere bizimodua hobeto ezagutuko du irakurleak. Komunitatearen bizitzako jarduerak zeintzuk diren ezagutuko du. Besteak beste, ehiza, zizelkatze teknikak edo antzinako errituak kontatuko ditu Kanidek.

Sainz de Murietaren proiektua 2019ko deialdian aurkeztutako 38 proposamenen artean aukeratu eta bat izan zen, eta ekimen honi esker argitaratu ahal izan dira bi liburuak. **K**

## Kronikako bulegoa itxita, momentuz

### KRONIKA ERREDAKZIOA

Koronabirus kasu bat gertu dela eta, prebentzio neurri gisa, datozen egunetan bulegoa ixtea erabaki du Kronikak. Kronikarekin kontaktuan jartzeko, deitu hurrengo telefono zenbakira: 688660714. Eskerrik asko eta barkatu eragozpenak.

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzeko duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**† MANUELA GOIKOETXEA CAMIO**  
Herenegun hil zen, 86 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Senarra: Juan González; seme-alabak: Juan Bautista, Pablo (†), Jose Javier eta Rosa, Pedro eta Maixus; Iñaki eta Loli, Yosune eta Inaxio, M<sup>a</sup> Carmen eta Adel, Jon eta Lierni; ahizpa: Mari Carmen, ezkon anai-arrebak, ilobak, Alicia eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTEAZKENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, NTRA.SRA. DE LA ASUNCION Y DEL MANZANO** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**Hondarribia-Hernanin, 2020ko abuztuaren 5ean**

Helbidea: Endanea baserria  
OHARRA: Gaur azteakena 11.00etan Hondarribiko hilerrian lur emango da.

**† MANUELA GOIKOETXEA CAMIO**  
"Bazkide sortzailekidea"

- Goian bego -

Eskerrik asko Ama, zure borondatea eta kementa guregan zabalzeagatikan. Beti gurekin biziko zera.

**Hondarribia-Hernanin, 2020ko abuztuaren 5ean**

### IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**